

Euskal Kazetarien Elkarteak etapa desberdinak izan ditu, eta horietako gehienetan lurralde bakoitzak bere erakunde propioa eta bere estatutuak eduki zituen. Bilbokoa lehenengoa izan zen, 1922an sortua, Santanderren (maiatzaren 19an) Espainiako Kazetarien Elkartearen Federazioa (FAPE) eratu baino lehen. I.Mundu Gerraren ostean, mundua Nazioen Gizarteak zuzentzen zuen eta beste gerra-gatazka bat sahisteko helburuaz jaio zen.

20.hamarkadan, geurea, gizarte polarizatua eta dardartia zen eta elkarteak inolako euskarri ekonomikorik gabe mantentzen ziren eta baita, beren zuzendarien gogoei esker ere. Kazetarien Elkartearen sektore editorialarekin eta kazetaritza-informazioarekin ere estuki lotua zegoen. Honen asmoa eta intentzioa bere egoitza gailentzen zuen esaldi eder honekin labur daiteke: "Prensa Askatasuna inprentaren arte zaindariaren ondorioz jaio zen, jakintzaren eta kulturaren gordailu iraunkorra, eta –Mirabeauk 1788an esan bezala- jakintsuen kontsolamendu, herrien argia eta tiranoen ikara izan behar du".

Beranduago, Primo de Riveraren diktaduraren ostean, "Hojas del Lunes"ak (Astelehenetako Argitalpenak) jaio ziren, Bilbokoa 1931ko otsailaren 23an, helburu bikoitzarekin: egunkarietako langileak deskantsatzeko eta elkarteko kazetariak astekari bat izan zezaten beren elkartze-grinari bizirautea uzten ziena. Kazetari bilbotarrak euren buruen alde lan egiteko prest zeuden, eta baita prentsa eta "egia" askatasunaren alde, Unamuno bilbotarrak esango zukeen bezala, lan egiteko baita ere. Beti leial Karl Jaspersen esaldi honi: "Herri baten patua, sustatu dezakeen kazetarien kategoriari lotuta dago"

Elkartearen orduko gizarte bizkaitarra bezala, Mario Benedettik zioen "pluralitate plurala"rekin konprometitua zegoen, ideia guztiak errespetatuz, baina, estatutuek zioten moduan (7.artikulua) "alderdikeria politikoa suposatzen duten aukerak baztertuz". Horiek Elkarteko edonolako ekintzetatik, kanpoko zein barnekoa, geratzen ziren, non "momentu oro zentzu profesioanala gailendu behar da" eta guztion eta norberaren ideien errespeturik handiena erakutsiz, eta askatasuna eta demokraziaren aldeko defentsa sutsua eginez, barnekoa gutxienez. Horrek ez zuen esan nahi "kazetaritzaren

lanbidearen ordezkari, koordinazio, kudeaketa eta defentsa organu" den (2.artikulua) bezala, ez zeudela bere barnean islaturik denek batera Elkartea askatu eta aberasten zuten sektore, komunikabide eta ideia guztiak.

Euskal elkarteak, hain zuzen ere, mantendu ziren -gerra zibil betean ere- argitalpen askoren ugaritzeari esker eta baita lan egiteko gogotsu zeudenei esker, zeintzuk lehen etapa batean, Goi mailako Eskolak sortu ziren arte, publizistak, idazleak eta editoreak ziren. "Hoja del Lunes de Bilbao" honek (Donostiak berea argitaratu zuen) edizio berezia izan zuen Araba eta Errioxarako, eta diktadura frankistaren urteetan zehar eta baita trantsizio demokratikoan ere, tiradarik haundiena izan zuen, 115.000 ale baino gehiagorekin. "Prensa konprometitu eta abangoardiako prentsa talde kopuru txikiaren parte izan zen", Administrazio Frankistaren kentzearen mehatxupean beti ere. 53 urteren ondoren eta 2.756 aleren ostean, "Hoja" egunkaria itxi zen, beste guztiak bezala, administrazioaren ahalmenak egunkarietako editorialei astelehenetan ere argitaratzera derrigortuta.

"Hoja" itxi zenengan Elkartea ere itxi zen, dirurik ez zeukalako, eta profesionalek euren eguneroko albistegietan edota euren etengabeko irrati edota telebista-saioretan lan egiten zuten eskusiboki. Etapa berri baterako prestaketa eta berrantolakuntza hilabeteak izan ziren zeina "Bizkaiko Kazetarien Elkartea" izenpean mantendu zen baina gutxira, betidanik samintasunez horitutako Euskal Elkartera pausua emango zuena. Eta horrela egin zen, ez bakarrik aurreko helburuei erantzuteko baizik eta kazetaritza ikasketek Eskolen maila baino altuagoa izan zezaten lortzeko eta hauek, Informazio/Komunikazio Zientzien Fakultateak izatera heltzeko. Elkarreak, gainera, Heziketa Programa zabala eratu zuen, teknologia berrietarako egokitzapen kurtsoekin eta baita etorkizuneko lanpostuetako aztarnategi kurtsoekin ere. Hauxe, hainbat enpresa eta erakunderen laguntzarekin egin zen, Unibertsitatea (Autonomia eta Deustokoa) eta BBK Aurrezki Kutxa (Bilbao Bizkaia Kutxa), zeinekin beka programa zabal bat ere egin zen.

Era honetan, heziketa etengabea eta lizentziadun berrien irteera profesionalak sustatzen saiatu zen teknologia berrietarako egokitzapen eta komunikazioaren arloko aurreratze kurtsuekin eta baita beste hainbat gairen inguruko Kurtso eta Jardunaldiekin ere, hala nola Ingurugiroa, Pymeak eta Autoenplegua, Informazio Ekonomikoa, Nazioarteko Harremanak, Internet eta Teknologia Berriak, Europa, etab. eta baita Justiaziaren inguruko Jardunaldi bereziak ere, profesional adituekin. Kasu guztietan, Elkartek Europako Kontseiluaren apezari erantzuten zion: "Prozesu informatiboaren konplexutasuna dela eta, zeina gero eta gehiago teknologia berrietan, arintasunean eta sintesian oinarritzen den, kazetariei heziketa prestakuntza egokia eta intentsiboa exijitu behar zaie".

Web orrialdean Lan Boltsa bat izateaz gain, non egunero programa asko deskargatzen ziren, "Kazetariak" hileroko egunkaria argitaratu zen eta baita beste ale berezi batzuk ere, hala nola Bilboren 70.urteurrenari eskainitakoa zeina Udalak erabili eta munduan zehar hedatu zuen. Aldi berean, askatasunaren eta egiaren defentsa absolutuaren alde eta terrorismo eta erradikalismoaren aurka, beste elkarteen eta erakundeen esker on ugari eta sariak jaso zituen. Eta Elkartek, uretan zehar, Elkargoen aldeko apustua mantendu zuen eta hauxe, Eusko Legebiltzarrean 2012ko ekainaren 28an lortu egin zen, hilabete batzuk geroago eratuz, eta Elkartearen izatea errespetatuz, zeinarekin lana, antolakuntza, helburuak eta xedeak partekatzen dituen.

*José Manuel Alonso*

*Lehendakaria 1999-2006*